Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2018ko uztailearen 25eko 19:00etan, Erroibarko Udala bildu zen, lehen deialdian, bilkura arrunta egiteko; bertaratu ziren zinegotziak: Jesus Esteban Juanarena Apestegüia, Alvaro Villanueva Azcarate, Miguel Echamendi Hernandez, Joaquin Maria Martinez Choperena, Joseba Martinez Rey eta Eduardo Urtasun Vidondo; alkatea, Enrique Garralda Erro, mahaiburu izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Iurre.

Gai zerrendari ekin aurretik, EHBildu taldeko zinegotziak, Martinez Rey jaunak, bilkura grabatuko duela dio.

1.- 2018ko MAIATZAREN 9ko eta UZTAILAREN 6ko BILKUREN AKTEN ONESPENA

Aho batez erabaki da 2018ko maiatzaren 9ko eta uztailearen 6ko bilkuretako aktak onartzea, eta Martinez Rey zinegotziak eskatu du uztailearen 6ko aktan TAParen bidez adjudikatu diren lanei dagokienez kentzea “ez dela beharrezkoa prozedura irekia erabiltzea” eta horren ordez hau jartzea “uste dutela egokiagoa dela prozedura sinplifikatua erabiltzea”.

Juanarena zinegotziak dio maiatzaren 9ko aktaren denetarik izeneko puntuan, Sorogaingo seinaleztapenari dagokionez, berak esan zuela Comercial Itolegik horren gaineko aurrekontua aurkeztu ahal zuela.

2.- ALKATEAK 2018KO MAIATZAREN 5ETIK UZTAILAREN 20A ARTE EMAN DITUEN EBAZPENAK

Alkateak, Garralda jk., 2018ko maiatzaren 5etik uztailaren 20ra eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du. Zinegotziak jakitun dira.

Martinez Choperena zinegotziak ebazpen hauen gaineko azalpenak eskatu ditu:

87. Ebazpena, Delia eta Enrique Garraldak sustatu duten banantzeko baimenaren baliogabetzeari buruzkoa, jakinarazi da baimenak ez zuela behar zena isladatzen eta, hortaz, baliogabetu eta berria egin behar dela, behar dena isladatzen duen baimena emanez, beti ere legearen barne.

106. Ebazpena, Loizu eta Orondritz arteko mugaren hertsiketa lanei eta horien kostuei buruzkoa. Jakinarazi da Udalak hertsiketa lanak egin dituela eta Loizuri dagokiona Udalaren kargu dela, babespeko kontzejua baita, eta Orondrizko kontzejuari dagokiona kontzeju horrek ordaindu behar duela eta horregatik zati hori kobratzen zaie.

110. Ebazpena, Vidal Auban Retak PAC delakoaren ziurtapena ukatzen duen Erroibarko Udalaren Alkate Ebazpenaren aurka jarritako 18-00973 zk. duen Gora jotzeko Errekurtsoari buruzkoa. Jakinarazi da, legeak agindu bezala, NAAren aurrean errekurtsua jarri denez, espedientea igorri behar dela Auzitegira, eta kasu honetan errekurtsua alkatearen ebazpenari jarri zaionez, alkatearen txostena gaineratu behar dela eta txosten hori Hector Nagore letratuari eskatu zitzaioela.

115. Ebazpena, María Lidia Almirantearena Larrañetak Erroibarko NA 10557 ehiza Barrutia zeharkatzen duen errepidean orkatz baten aurka izan zuen istripuan bere ibilgailuak izan zituen kalteengatik ordainak ukatzen zizkion Erroibarko Udalaren Alkate Ebazpenaren aurka jarritako 18-00810 Gora Jotzeko Errekurtsoari buruzkoa. Aurreko ebazpenaren antzeko informazioa eman da. Hala ere, kasu honetan, gaia aseguru etxeei dagokie eta txostena Mapfreko letratuak, Carlos Irujo, prestatu zuen, aseguru etxe horrekin baitaukagu.

122. Ebazpena, GENISTA ACTIVOS S.L.-k 2018ko urtarrilaren 24an Erroibarko Udalaren 2017ko abenduaren 13an igorri zion OHGZren gaineko erantzukizunari buruzko erabakiaren jakinarazpenaren aurka jarritako berraztertze errekurtsua ez onartzeari buruzkoa. Oroitarazten da ondasun horrek Udalarekin kontribuzio zorrak zituela eta ondasuna erosi zutenek ez zutela horren berri, baina legeak dioena kontuan hartuz, ondasunaren erosleek hark dituen zorren kargu egin behar dute.

19:20an Miguel Echamendi zinegotzia bilkuran sartu da.

3.- 2017ko KONTUEN BEHIN BETIKO ONESPENA

Alkateak, Garralda jnk., jakinarazi du legeak ezarritako epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu 2018ko maiatzaren 9an hartu zuen erabakiari, hots, 2017ko kontuen espedientea hasiera batean onesten zuenari.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du hasierako onespenean bere taldeak bozkatu ez bazuen ere, kontuan berrikusteko denbora tartea izan dutenez eta arazorik antzeman ez dutenez, onetsiko dituztela dio.

Kontuak eztabaidatu ondoren Udalak, Kontuen Batzorde Bereziaren lana eginez, erabaki du aho batez kontuen espedientea behin betiko onartzea. Hona hemen:

AURREKONTUAREN EMAITZEN EGOERA

HERTSIERA**Ixtea:**

Aitortutako eskubide garbiak	1.115.621,99
Aitortutako betebeharrak	1.136.722,05
AURREKONTUAREN EMAITZA	-21100,06

EZARPENAK

Finantzazio positiboaren desbaxioa	0,00
Finantzazio negatiboaren desbaxioa	0,00
Diruzaintzako soberakinarekin finantzatutako gastuak	8.589,11
Merkataritza operazioen emaitza	0,00
AURREKONTUAREN EMAITZA EGOKITUA	-12.510,95

DIRUZAINZAKO SOBERAKINAREN EGOERA

KOBATZEKE DAUDEN ESKUBIDEAK	URTALDIAREN NITXIERA
	985.495,13

+ Diru-sarrereren aurrek.: Indarrean dagoen urtealdia	185.509,13
+ Diru-sarrereren aurrek.: Itxitako urtealdia	161.352,03
+Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	789.756,91
- kobratzeko zailak diren eskubideak	151.122,46
+ ORDAINTZEKE DAUDEN BETEBEHARRAK	157.853,64
+ Gastuen aurrek.: Indarrean dagoen urtealdia	73.920,57
+ Gastuen aurrek.: Itxitako urtealdia	6.559,17
+AURREKONTUZ KANPOKO GASTUAK	77.373,90
+ DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK	203.825,16
+PILATUTAKO FINANTZAKETA NEGATIBOEN DESBIAZIOA	0,00
= DIRUZAINZAKO SOBERAKIN GUZTIA	1.034.467,13
Ukitutako gastuen finantzazioengatiko Diruzaintzako Soberakina	0,00
Ukitutako baliabideengatiko diruzaintzako soberakina	641,96
Gastuetarako diruzaintzako soberakina Orokorretarako	1.033.825,17

**DIRUZAINZAKO
OROKORRA****LABURPEN****KOBRANTZAK****ORDAINKETAK**

AURREKONTU ARRUNTAK	921.248,55	AURREKONTU ARRUNTAK	1.053.692,15
AURREKONTU HERTSIK	68.853,37	AURREKONTU HERTSIK	42.930,59
+AURREKONTU0 KANPOKO DIRU-SARRERAK	1.454.918,43	+AURREKONTU0 KANPOKO GASTUAK	1.537.215,83
KOBRUAK GUZTIRA	2.445.020,35	ORDAINKETAK GUZTIRA	2.633.838,57
HASIERAKO IZAKINAK	395.643,38	BUKAERAKO IZAKINAK	206.825,16
GUZTIRA	2.840.663,73	GUZTIRA	2.840.663,73

4.- 2018ko PLANTILLA ORGANIKOAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

Alkateak, Garralda jk., jakinarazi du legeak ezarritako epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu Udalak 2018ko maiatzaren 9an hartu zuen erabakiari, hots, 2018ko plantilla organikoa hasiera batean onesten zuenari.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2018ko plantilla organikoa behin betiko onartzea, hona hemen:

1º.- 2018ko plantilla organikoa onartzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea,

1.- Funtzionarioak:

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1.1 Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-lehiaketa murriztua (barne-igoera). Maila: D. Lan egoera: Bete gabe. Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %35,77. Lanadi osoa. Lanaldiaren luzapeneko osagarria: %10. Gida baimena: B motakoa.

- Funtzionarioen izen-zerrenda.

Z.A.L.: Xabier Cia Urrutia.

2.- Langile finkoak.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %30,20. Lanaldiaren luzapeneko osagarria: %10. Lanaldia: 71,44%.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %30,20. Lanaldiaren luzapeneko osagarria %10. Lanaldia: 71,44%.

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %8,77, Lanaldia: 29,33%. (jardunean).

- Lan kontratudun finkoen izen-zerrenda.

Administrari laguntzailea Ana Isabel Erneta Erro.

Administrari laguntzailea María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu Anitzetako Langilea. Ivan Echeverz Balda.

3.- Orreaga eta Aurizko Udalekin bateratutako zerbitzuak.

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. A Maila. Lanpostuko osagarriak: %40, Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa.

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Ezcurra Iurre, M^a Soledad. Bitarteko idazkaria. Kokalekua: Jardunean.

5.- ERROIBARKO HERRI-LURRETAKO ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA

Gai honi dagokionez, jakinarazi da, Udalak ordenantza onetsia zeukala eta horren arabera aritu dela, ondoren egin diren aldaketak kontuan hartuta, baina ez dela NAO n argitaratu eta kontua formalizatzeko berriro osoko bilkuran onartu behar da eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu. Alkateak, Garralda jk. hitza hartu du eta esan du ordenantza hori aspaldikoa denez beharrezkoa dela eguneratzea eta hainbat puntu kendu eta berriak gehitzea, eta proposatu du berriro hasiera batean onartzea eta alegazioak egiteko epean egokiak izan daitezkeenak egitea. Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du horrela baldin bada, ados daudela, bestela behin betiko onespena ez baitzuten onartu behar, uste baitu hainbat zuzenketa egin behar direla.

Horiek horrela, aho batez erabaki da Erroibarko Herri-lurretako Ordenantza hasiera batean onartzea eta batzordean hura lantzea, eguneratzeko eta egokiak ikusten diren ekarpenak gaineratzeko.

6.- ERROIBARKO UDALAK LURZORU URBANIZAEZINEAN SUSTATU DUEN ERAIKITZEKO ORDENANTZAREN 24. ARTIKULUAREN ALDAKETA XEHEKATUA.

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du helburua dela **24.** Artikulua aldatzea, **III. Kapituluko Irizpide Orokorra.--** Udal Planaren eraikitzeiko Ordenantzetako **lurzoru urbanizaezinean eraikitzeiko baldintzak**, gaur egun onartuak dauden estalki ereduak ez diren beste batzuk ere onar daitezen, badaudelako egungo

udal plana onetsi aurretik zeuden nabe batzuk beste era bateko estalkiak dituztenak, eta, eskaera berri batzuen ondotik artikulu hori aldatzea egokia ikusten baita.

EGUNGO TESTUA

ERAIKITZEKO ORDENANTZAK

III. KAPITULUA.- LURZORU URBANIZAEZINEAN ERAIKITZEKO BALDINTZAK

24. art.-Irizpide orokorra.

(Bosgarren paragrafoa):

“10/1994 Foru Legearen 31. Artikuluan baimendu ahal direla aipatzen diren nekazaritzako, abeltzaintzeko eta industriako instalakuntzen kasuan, aurreko paragrafoan aipatutakoaz gain, beste material mota bat erabili ahalko da beti ere jardueraren berariazkotasunak hala justifikatuta, besteak beste fibrozementua edo gorri ilun koloreko xafla ondulatua estalkietan eta xafla edo zura fatxadetan.

PROPOSATUTAKO TESTUA

Ganga-formako estalkiak egin ahal izateko honako testua proposatzen da:

ERAIKITZEKO ORDENANTZAK

III. KAPITULUA.- LURZORU URBANIZAEZINEAN ERAIKITZEKO BALDINTZAK

24. art.-Irizpide orokorra

(Bosgarren paragrafo berria):

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateratua onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 119. Artikuluaren arabera baimendu ahal diren nekazaritzako, abeltzaintzako eta industriako instalazioen kasuan, honako materialeak erabiltzea baimendu ahalko da (beti ere jardueraren zehaztapenak justifikatzen badu): fibrozementua edo xafla ondulatua estalkietan (ahal dela gorri ilun kolorekoa) eta xafla edo zura fatxadetan. Bi edo lau isurkiko teilatuez gain, ganga-formako estalkiak ere baimendu ahalko dira”.

Udal arkitektuak egin duen txostenaren arabera.

Tramitazioa antolamendu xehatuko determinazioen aldaketa gisa proposatu da (1/2017 LEGEGINTZAKO FORU DEKRETUA, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duenaren 77.3 eta 72. Artikuluak).

b) Proposatuta den aldaketak lurzoru urbanizazinean eraikitzeke baldintzei eragiten die. Erroibarko Udala konturatu da Udal Plana onetsi aurretik egindako nekazaritzako edo abeltzaintzako nabe batzuen estalkiak eta materialak ez zutela bat egiten Planarekin, eta fatxadak txapaz edo estalkiak ganga itxurako txapaz eginak egoteagatik edo teilatu-hegalik ez edukitzeagatik ez dutela inpaktu txarrik sortzen.

Fatxadetan txapa erabiltzeari dagokionean, aipatu behar da estalkietan erabiltzea onartua badago ere, nekazaritza zein industria arloko eraikinetan asko erabiltzen dela irtenbide egokia eta merkeagoa baita.

Beste aldetik, ganga itxurako estalkiak dituzten eraikinak negutegi eremuetan era egokian integratzen dira, eta, beste batzuetan, bi edo lau isuriko estalkiak baino hobeki egokitzen dira jardueraren beharretara.

Txostena ikusita, aho batez erabaki da, da 1/2017 LEGEGINTZAKO FORU DEKRETUA, uztaileen 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen 77. Artikuluarekin eta 72. Artikuluak ezarritako prozedurarekin bat eginez.

1.- Udal Planaren Eraikitzeke Ordenantzetako 24. Artikulua.- III Kapituluako irizpide orokorra.- lurzoru urbanizazinean eraikitzeke baldintzak izeneko testuaren aldaketa hasiera batean onartzea, udal arkitektoak egin duen dokumentua kontuan hartuz, eta hilabeteko epean jendaurrean jartzea. Hona hemen:

Bosgarren paragrafoaren testua beste honekin ordezkatzeko:

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateratua onesten duen uztaileen 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 119. Artikuluaren arabera baimendu ahal diren nekazaritzako, abeltzaintzako eta industriako instalazioen kasuan, honako materialeak erabiltzea baimendu ahal da (beti ere jardueraren zehaztapenak justifikatzen badu): fibrozementua edo xafla ondulatua estalkietan (ahal dela gorri ilun kolorekoa) eta xafla edo zura fatxadetan. Bi edo lau isurkiko teilatuez gain, ganga-formako estalkiak ere baimendu ahal dira”.

2.- Alegaziorik egon ezean behin betiko onartzea, eta, ondoren, dokumentua, behar bezala izapidatua, eta, txosten honekin batera, Nafarroako Gobernuke Sustapen Departamentura igortzea. Behin betiko onespena eta haren edukia NAOn argitaratzea.

7.- ERROIBARKO HERRI.MENDIETAKO OIHAN APROBETXAMENDUA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Landa Garapeneke, Ingurumeneke eta Toki Administrazioke Departamentuak egin duen markazioaren ondote, Laurentxin eta Sorogainen dauden oihan aprobetxamenduen enkante publikoa egiteke balorazio ekonomikoa eta baldintza plegu teknikoak jaso direla; oinarrizko prezioa 17.736,48 euro eta 4.340,45 euro dira hurrenez hurren. Udalak baldintza partikularren plegua onetsi behar du.

Aho batez erabaki da enkante publikoa egitea plegu itxiaren bidezke prozeduraren bidez Kontratazio Atarian jarrita. Eta enkantea arautuke duten jarraibide teknikoekin batera baldintzen plegua onetsiz.

8.- 2018ko BASO JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKAERA. ADJUDIKATZEKE PROZEDURA.

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta 2018-2019 urtealdiko baso jardueren deialdiari dagokionez esan du, izan diren elkarrizketen ondoren, lan hauek aukeztea proposatzen duela: Urniza-Loizuko bidea, Larraingoatik ur-biltegira doan bidea, neguan haraino iristea zaila baita, nahiz eta Martinez Choperena zinegotziak horrenbestera ez dela uste duen, Aintzua-Loizuko sasi-garbiketak, Sorogaingo sasi-garbiketak, Laurentxiko zuhaitz landaketa, aurten ez baita egin eta sartu behar da. Lan horien proiektua Basarteak prestatuko du, eta horretaz Fermin Izcorekin mintzatu da jakinaren gainean egon dadin. Ehamendi zinegotziak hitza hartu du eta proposatu du Basarteari esatea gaztainondoan ordez hartizak landatzea. Martinez Rey zinegotziak dio jarduera gehienak sasi-garbiketak direla eta galdetu du zer uste duen onartuko dela, eta alkateak erantzun du zalantzak dituela Sorogain eta Aintzua onetsiko duten, baina gainerakoa uste du baietz; azkenik dio uste duela ez direla horren proiektu handiak egin behar, kostua handia baita eta horietan sartzen diren gauza asko gero ez baitute diruz laguntzen.

Gaia eztabaidatu ondoren, erabaki da diru-laguntzak Basarteak egingo duen proiektuaren arabera eskatzea eta proiektua onartzea, nahiz eta Aintzuaari dagokionean uztailearen 30ean 19:00etan aintziotarrekin egingo den bileran adostuko dena kontuan hartuko den.

Gai zerrendatik kanpo, alkateak proposatu du, arkitektoaren txostena iritsi denez, 2018ko uztailearen 23koa, berriro ere Jose Maria Eciolaza Ochoak Aurizberrin, 12 poligonoko 56 lurzatian sustatu duen Udal Planaren egiturazko aldaketa puntualaren hasierako onespenera ekitea. Gaiari berriro ekin behar zaio Nafarroako Gobernuak errekerimendua egin baizion eta sustatzaileak erantzun du eta arkitektoak ere txostena egin du. Aho batez erabaki da gaiari ekitea eta, aldi berean, aho batez erabaki da, dokumentu berriaren eta 2018ko uztailearen 23an udal arkitektoak egindako txostena ikusirik:

1.- Erroibarko Udal Planaren aldaketa puntuala hasiera batean ONARTZEA, Aurizberriko 12 poligonoko 56 lurzatiari dagokionean; aldaketa hori Jose Maria Eciolaza Ochoak sustatu du, Jesús Aramendia Pardok eta Alberto Aldave Martinezek 2018ko urtarrilaren 17an egindako dokumentuaren arabera, eta dokumentu hori, testu bateratua deitua, behar bezala izapidatua, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Tokiko Administrazioako Departamentura igortzea, behin betiko onets dadin.

2.- Espedientea, behar bezala izapidatua, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Tokiko Administrazioako Departamentura IGORTZEA, behin betiko onets dadin, aipatu diren hirigintza-txostenak erantsiz.

9.- DENETARIK

Garralda jk. honako informazioa eman du:

NAAren Ebazpena (Nafarroako Administrazio Auzitegia)

Jakinarazi da NAAk 2018ko uztailearen 2ko 1354 zk. duen ebazpena ailegatu dela; horren bidez Vidal Auban Retak Erroibarko Udalaren alkateak emandako 77/2018 ebazpenaren aurka jarritako errekurtsua onetsi da eta errekurtsogileari eskatu zuen ziurtapena eskuratzeko eskubidea onartu zaio, hori guztia Udalak badituelako bizilagunek udalarekiko izan ditzaketen zorrak bide exekutiboaren bidez kobratzeko aukera. Dena den, Hector Nagoren letratuarekin bilera egingen da oportunitateak bueltatzen

denean, hemendik aitzina zer egin behar den argitzeko. Martinez Rey eta Martinez Choperena zinegotziek uste dute jarraitu den prozedura ez dela egokia izan eta gauzak horrela egitean interpretazio desegokiak eta adiskidekeriak sor daitezke.

Udalbatza jakitun da.

Nasuvinsaren proposamena

Jakinarazi da Nasuvinsak proposatu duela haien bidez Udalak zerbitzu bat ematea, hots, Lurralde Aberastasuneko aurreko txostena behar duten jarduketan kasuan Nasuvinsak txostena eta dagokion planoaren prestatzea, lan horrengatik 60 euro kobratuz.

Udalbatzak proposamena onartu du eta guztiak ados egonik, jakitun gelditu da.

Udal Plana

Jakinarazi udal planaren idazketa aurrera eramateko egin diren jarduketak, horien artean herrietan izan diren bilerak eta herri batzuetan, Aurizberri kasu, zailtasunak izan direla. Eta Ardaitz eta Loizuko babespeko kontzejuekin bilerak egitea falta dela.

Udalbatza jakitun da.

EUK

Jakinarazi da bilera egin dela EUK-ko zaindariarekin hainbat lan egiteko dauden arazoak aztertu eta baimenak emateko aukerak proposatzeko: Erroko putzu septikoa, Erro ibaitik zuhaitzak kentzea, Laurentxin egurra ateratzeko aukera aztertzea ibaitik pasatu behar delako, eta abar.

Udalbatza jakitun da.

Ikasleen garraioa

Alkateak jakinarazi du atzo bilera egin zuela ikasleen garraioa erabiliko duten gurasoekin eta joan den urtean bezala jarraitzea adostu zela dio; guztira 10 daude, Aurizko 1 eta Erroibarko 9.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta bere ezinegona azaldu du aurreko urteetan bera izan zelako gaiak arduratu zena eta koordinatu zuena eta aurten berandu deitu ziotela, lehenago abisatzeko denbora nahikoa izan bada ere eta errespetu falta iruditzen zaiola. Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du barkamena eskatuz eta hurrengoan abisatuko diotela dio.

%0,7 aferaz hitz egiteko batzordea bildu ez denez, Mezkirizko Oscar Garciak errefuxiatuen programari laguntza emateko egin duen eskaera ikusita, 1.500,00 € ematea erabaki da.

Udalbatza jakitun da.

Kintoko Mankomunitatea

Alde batetik jakinarazi da Zerbitzu Anitzetako Langileak osasun arazoa izan duela, eta bestetik, oilagorra eta usategien enkanteen emaitzari buruzko informazioa eman da; Oilagorraren kasuan oinarritzko prezioa 10.000 € zen eta 24.000 eurotan adjudikatu da, eta usategiei dagokienez, batzuk adjudikatu dira eta beste batzuk berriro aterako dira enkantera, %10 merkeago. Modu berean jakinarazi da Baztango idazkaria bajaz dagoela eta haren ordean Erroibarko idazkaria joan da enkanteen lanak egiteko.

Martinez Rey zinegotziak enkanteen aktak jaso nahi dituela eskatu du.

Udalbatza jakitun da.

Eskualdeko alkateek Artzapezpikuari prioreari buruz igorritako eskutitza

Jakinarazi da eskualdeko alkateek eskutitza sinatu eta Iruñeko Artzapezpikuari igorri diotela, Orreagako Priorearen lekualdaketa geldiaraztea eta Orreagan uztea eskatzeko.

Udalbatza jakitun da.

Urnizako eskaera

Jakinarazi da Francisco Berdejok, Urnizako bizilagunak, eskaera egin duela adjudikatuak dauden herri-lurretan 20 ardi jartzeko, eta horiek horrela, bilera egin zela Urniza, Loizu eta Orondritzekin, eta erabaki zela herri-lurretan 20 ardi jartzea uztea, beti ere osasun arauak betetzen baditu eta hertsia elektrikoa jartzen badu.

Udalbatza jakitun da.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta informazio hau eman du:

Sorogaingo seinaleak

Sorogaingo seinaleei dagokienez, Bidausi Mankomunitateak diruz lagundua, jakinarazi du kartel eredia Joni pasatu ziola eta berak Zaborren Mankomunitateari igorri ziola, baina aldu behar dela Nafarroako Gobernu eta konpostajearen gaia sartu behar baitira; Comercial Itolegik aurkeztu zuen aurrekontua onetsi zen baita mankomunitateak kostuaren %50 bere gain hartuko zuela ere, eta hori guztia Bidausi Mankomunitateko idazkariari igorri zaiola.

Udalbatza jakitun da.

Pirinioko Mahaia

Pirinioko Mahaiaren bilerak bukatuta, Legebiltzarrak Nafarroako Gobernuko Departamentu, Kontseilari eta Zuzendari Nagusiekin biltzen jarraitu du, eta jaso diren ondorioak biltzen dituen dokumentua prestatu da; dokumentu hori Mahairi igorriko zaio eta berak erakunde guztietara, jakinaren gainean egon daitezten. Modu berean, udaren ondoren, Legebiltzarrak bilera eginen du Pirinioaz bakarrik hitz egiteko; legebiltzarreko talde guztiak lanean ari dira eta Batzorde Organikoa osatuko dute. Mahaiak bilkura monografikoa noiz egingo den jakinaraziko die toki entitate eta erakundeei. Landuko diren gaiak: etxebizitza, argi-hornidura, banda zabala, industrialdeak, abeltzaintza, ardi-latxaren arazoak barne, eta abar.

Simulazioa

Joan den asteburuan suhiltzaileen parkeko eta osasun etxeko simulazioa egin zen. Hiru simulazio egin ziren eta Mezkirizko Kontzejuak galdetu du simulazio horiek ekarri dituzten gastuez Udala arduratuko den. Berak uste du Udalak aparatuek ordaindu dituela eta horien mantentzea kontzeju bakoitzaren esku egon beharko lukeela.

Gaia eztabaidatu ondoren, guztiak ados daude Udalak simulazioak ordainduko dituela baina gainerakoa kontzejuak ordaindu behar dutela.

Erroibarko Eguna

Ibarreko Egunaren ondoren, Lintzoaingo jendeak iritzi ona dauka, ez zegoen kanpoko jende asko, baina gauzak ongi joan ziren eta jendea pozik. Igandean egiteari dagokionean, iritzi diferentek daude, baina, orokorrean, ongi dagoela diote. Orain festaren kostu osoa ikusi beharko da eta balorazioa egin, heldu den urtean kontuan hartzeko.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta galdetu du ea zergatik Erro-Zilbeti mankomunitateak ezetza eman dion “Oihan Bainuen” proiektuari. Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta erantzun dio ez dakiela zehazki zein izan den arrazoa, baina bera Cabodevillarekin, proiektuaren sustatzailearekin, mintzatu zela beste aukera batzuk

aztertzeko, Bizkarretako hariztia, Lintzoain, Erro eta Esnoz, eta interesgarria iruditu zitzaiola eta aztertuko zuela esan zion. Villanueva zinegotziak dio bera Janet Torrearekin mintzatu zela eta garestiegia zela esan ziola. Juanarena zinegotziak dio berak dakiena dela hasiera batean Sorogain proposatu zela baina gero Zilbetin egitea aurreikusi zela, ez dakiela zergatik horrela izan den Sorogainen proiektuaren sustatzaileek behar duten baldintzak betetzen badira.

Martinez Rey zinegotziak dio jakin duela Magnak Erdizko proiektua berreskuratu nahi duela eta horren ganean zer daogen galdetu du. Alkateak, Garralda jk, erantzun du gaiari buruzko eskutitza igorri duela Magnak eta kopia egingo duela berari emateko.

Amavir Ibañeta zahar etxeari dagokionez, gaia zertan den galdetu dute, eta alkateak erantzun du Legebiltzarrean egon zirela, baina ordutik ez duela ezer gehiago egin eta ez diotela informazio gehiago eman. Martinez Rey zinegotziak dio Pirinioko Mahaitik gai horietaz ere zerbati egin dela eta uste duela elkarrekin landu daitezkeela, eta Garralda jk. dio bera prest dagoela. Badaude hitzatutako 25 plaza eta eskatzen dena da guztiak izatea edo gutxienez gehienak.

Bazkalekuen hektareei dagokienez zinegotziak galdetu du banaketa eta ziurtapenak egiteko jarraitu den irizpidea zein den eta nork ziurtatzen duen. Alkateak erantzun du Sorogain, Txangoa eta Adiko hektareak elkartuta ziurtatzen dela, eta ziurtagiriak Sorogainen azientza sartzan dutenei zein sartzan ez dutenei ematen zaizkiela, Txangoa eta Adiko bazkalekuak denek aprobetxatzen ahal baitituzte. Ziurtagiria alkateak sinatzen du. Azkenik eta gaiarekin bukatzeko Martinez Rey zinegotziak proposatu du, modu eraikigarrian eta garbiagoa izan dadin, banaketa Udalak egitea eta ez alkateak, eta urtero batzordea deitzea horretarako. Alkatea ados dago eta hori egiteko konpromezua hartu du.

Azkenik, Ardaizko bazkalekuei dagokienez, 3 urte daramazkigu adjudikatu gabe, eta aldi berean horiek aprobetxatzen ari dira deus ere ordaindu gabe, hortaz, uste du herri-lu horiek gaizki kudeatzen ari direla eta baldintza plegua prestatu behar dela enkantea egiteko. Alkateak hitza hartu du eta esan du, hasiera batean ados baldin badago ere, ez dela horren erraza, gaia zaila dela badaudelako lursail publiko eta pribatuak eta denak nahastuak daudela, eta zaila dela bereiztea, baina, hala ere, gaia aztertuko dela.

Eta bukatzeko Edurne Almirantearenak GKE baten proiektua aurkeztu du eta irailean %0,7ko gaiari berriro ekin beharko zaio eta konponbidea eman.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez 21:30ean bilera bukatutzat eman da eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.